

Emakumeek jolas gutxi



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Bi anai-arreba parkean jolasean. Deskuidatu da gurasoa minutu erdi bat, askaritarako ogitartekoak poltsan aurkitu ezin, eta, ohartzera, hortxe joan zaizkio bi umeak, txori-txori, arbola batean gora. “Jaitsi hortik, Oier! Zer uste duzu, Tarzan zarela?”, bota dio gurasoak semeari, eta segidan alabari: “Jaitsi zu ere, Ainara! Hankaz gora erori eta ipurdi-bistan geldituko zara-eta bestela!”. Bete-bete harrapatu dituztenez, lurrera jaitsi dira biak: umilduta baina oihutxo tarzankarak imitatuz Oier, eta zeharo lotsagorriturik Ainara, gurasoaren aginduz jantzi duen soinekoa belaunetaraino heltzen zaiola segurtatu nahian. Txiki-txikitatik bridatzen digute emakumeoi mugimendua, antzutzen jolasa, eta lotsa-iturri bihurtzen gorputza.

Nerabezaroen izan ohi da bigarren ihesaldia, maiz behin betikoa: orduan errenditzen dira neska gehienak sedentarismora, ari-ezera. Mutilek (ez guztiek, bai askok) lasai ederrean segitzen dute ariketa fisikoa egiten, jolasean, giharrari gihar eta hauspoari hauspo, ume izateko lizentzia galdu gabe oraindik, gizaki arrak naturaz beranduago heltzen direla sinetsita dagoen gizarte baten onberatasun konplizearen aba-

roan. Neska nerabeei, aldiz, ez zaie inondik ere hain erraz baimentzen ume-jolasa, nahiz eta adin horretan oraindik hurbilago duten haurtzaroa helduaroa baino. Jolasa ez da guaya neskengan, ez da sexya. Eta jolasik ezean, kirolrik ere nekez, noski.

Mutikoen jolas batzuk kirol serio, inportante, etekintsu bilakatu zaizkigu. Futbol profesionala da adibiderik garbienteko bat: gizaki arrek, ume-jostetan segitzeak lotsa eman dienean, jolasa kirol bihurtu dute, eta beraz lehia, eta beraz joko. Ez alferrik, kirol-apustuen izurri teknologizatuak gizonak kutsatzen ditu gehien, eta ez dago aditu-aditua izan beharrik konturatzeko nola ari den zabaltzen mutil gaztetxoaren artean ere. Zehazki, maskulinitate hegemonikoaren norgehiagokan eta arriskuzaletasunean hezitako gizon langile-klasekoak daude gure hiri-herrietako auzo jakin batzuetan asuna bezala ugaritzen ari diren apustu-etxe ñirñirkarien ituan.

Emakumeen artean zabalduta dagoen izurria, berriz (agian kontabilizatzen zailagoa dena), sedentarismoa da. Jolasa ebasten digute gazte-gaztetatik, eta, ondorioz, kirola ere bai. Ikusiko dituzu emakumeak binaka pasean edo korri-

ka, ikusiko dituzu gimnasioaren lau paretan izerditsuen artean (dela spinning, dela zumba, dela pilates...), eta Euskal Herri berdeko batzuk ikusiko dituzu mendian gora ere. Nekez ikusiko duzu, baina, 50 urteren bueltako emakume-kuadrilla bat saskibaloian, kinta berekoak elkartzeko aitzakia gisa jarritako urtean behingo partidari, eta nekez ikusiko duzu 20 urteko neska bat herri erdiko frontoian bera bakarrik palan edo eskuz: ez inork galarazten dielako, noski, baizik emakumeek oro har ez dutelako nahi.

Zergatik ez dugun nahi: horixe da galdera. Zergatik ez dugu nahi mugitu? Zergatik ez dugu nahi jolasean aritu ez bakarka eta ez taldean? Zergatik ez dugu nahi gure hiri-herrietako espazio publikoak hartu eta lotsa eta beldur izpirik gabe salto eta korri egin izerdi-patsetan leher eginda bukatu arte? Jolasa bahitzen digute txikitari, gorputza gaztetan, eta denbora nagusitan. Agian izango du horrek zerikusitxoren bat. Ari-ezak osasun fisiko eta mentalerako zer ondorio dakarzkigun, berriz, osasun-sailen aldizkako txosten estatistikoetan azalduko da beharbada, grafiko eta letrorri artean mardul eta hotz. ●